



## ERREGIMEN EKONOMIKOA

### Ordainsariak

Legebiltzarkideek eskubidea dute dagozkien diru-izendapenak jasotzeko hautetsiak izan direla aldarrikatu den unetik.

Legebiltzarkideentzako diru-izendapen finkoak, eta garbiak, 2017. urteari dagokionez, 14 ordainketan eta gordin-izaerarekin, ondorengoak dira:

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria	
	Hilero
Diru-izendapena	6.910,06.- €
Eusko Legebiltzarreko lehendakariordeak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.880,75.-€
Eusko Legebiltzarreko idazkariak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.880,75.-€
Legebiltzar-taldeen bozeramaileak	
	Hilero
Diru-izendapena	5.880,75.-€
Legebiltzarkideak	
	Hilero
Diru-izendapena	4.996,15.-€





## **Antzinasuna**

Zenbait erabaki jurisdikzionalaren arabera, 2003ko abendutik aurrera, administrazio publikoekin zerbitzu-harreman juridikoren bat duten legebiltzarkideek Legebiltzarreko Mahaiari eskatu ahal diote jatorrizko administrazioak onartu dien antzinasuna ordaintzeko, legebiltzarkide-izaerari eusten dioten bitartean.

2017ko maiatzaren 1ean, 16 dira antzinasuna jasotzen ari diren legebiltzarkideak.

## **Trantsizio-ordaina legegintzaldia amaitzeagatik**

Trantsizio-ordaina oroharreko prezioko kopuru bat da, Mahaiak legegintzaldi bakoitzaren bukaeran finkatzen duena, Legebiltzarra desegitearen ondorioz baja hartzen duten legebiltzarkideei aplikatzen zaiena. Trantsizio-ordain hori atxikipen eta tributuen erregimen fiskal orokorraren mende dago.

Espresuki eskatu behar da eta, trantsizio-ordainak hartzen duen aldiari dagokionez, adierazi behar da ez dela inongo aldi baterako prestazio ekonomiko publiko zein pribaturik jasotzen. Diputazio Iraunkorreko Mahaiaren erabakia, 2016/08/03koa).

